

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

SARARGI, Komunikazio Bitartekotzako ikasle gisa arakatu dugun gabezi batetik abiatutako proiektua da. Komunikazio Bitartekotzako E.A.E-ko lehenengo promozioa izanda, merkatuan profesional bezala bidea ireki behar dugula aztertu dugu. Behar honekin batera, aukera bat zabaltzen zaigu: Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia eta honen barnean kokatzen diren PIAU (Planes integrales de Accesibilidad Unibersal) planak garatzeko beharra. SARARGI bi gabezi hauek betetzeko sortu dugu.

Ondorioz, SARARGI, irisgarritasun unibertsalaren arloan diharduen aholkularitza eta zerbitzu enpresa izango da, bezeroei komunikazio eremuaren prestazioak eskeiniko dizkiena hain zuzen ere. Eskuarki, enpresaren helburua irisgarritasun unibertsala sustatzeko produktuak eta zerbitzuak eskaintzea da, publiko orokorra eta sektore pribatu zein publikoko entitateak hartzaile ditugula